

Lurzoru kutsatuen karakterizazio intentsiboa *in vivo* eta *in silico* fokatzeak erabiliz

(*In vivo* and *in silico* approaches for an integral characterization of polluted soils)

Erik Urionabarrenetxea, Nerea Garcia-Velasco, Beñat Zaldibar,
Urtzi Izagirre, Manu Soto*

Zelulen Biologia Ingurumen Toxikologian (ZBIT) ikerketa taldea, Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Plentziako Itsas Estazioa (PiE-UPV/EHU), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Leioa, Bizkaia

LABURPENA: Azken hamarkadetako jarduera antropikoak ekosistemetan desorekak sortzen hasiak dira. Horrela, abeltzaintzak, nekazaritzak eta aktibitate industrialek pestizida eta metalekin kutsaturiko lurzoruen proportzioa emendarazi dute. Kutsatzaileen presentziak, lurzoruetan bizi diren organismoak eta, beraz, lurzoruk eskaientzen dituen Zerbitzu Ekosistemikoak erastea ekar dezake, arrisku-ebaluazio egokiaren beharra eskatuz. *In silico* modeloak, kutsatzaile baten aplikazio osteko ingurumen-kontzentrazioak aurreikusteko tresna egokiak dira, eta substantzien arrisku-ebaluazioa eta -erregulazioan lagundu dezakete. Bestetik, kutsatzaileak lurzoruan duten inpaktuak evaluatze aldera, osasunaren paradigma ikuspuntuak; hots, medio naturalak inter-erlazionatutako kompartimentu gisa ulertzen dituena, hedatzen hasi da komunitate zientifikoaren baitan. Era horretan, kutsatzaileek lurzoru organismoetan eragindako efektu toxikologikoen neurketak (*in vivo* test-ak eta biomarkatzailak erabiltzen dituztenak) omen handia irabazi dute ingurumenaren osasuna evalutzeko orduan. Lan horretan, kutsatutako lurzoruk evalutzeko ikuspuntu, teknika, software, gidalerro eta test ezberdinak aurkezten dira; lurzoru-ebaluazio integral bat burutzeko beharrezkoak direnak.

HITZ GAKOAK: Kutsatutako lurrak, ecohealth, *in silico* modeloak, ekotoxikologia, lurzoruko organismoak.

ABSTRACT: The anthropic activities during the last decade are causing damages on ecosystems. In fact, animal husbandry, agriculture, and industrial activities have increased the proportion of soils contaminated with pesticides and metals. The presence of pollutants could affect soil organisms and the Ecosystem Services provided; thus, a proper risk evaluation is required in order to assess the final environmental impacts of pollutants. *In silico* models are tools designed to predict environmental concentrations of released pollutants that could assist on substances evaluation and regulation. Meanwhile, the health paradigm, understanding the natural environment as an inter-related compartment, has been spread within the scientific community. Hence, the measurement of toxicological effects produced by contaminants on soil organisms (using *in vivo* tests and biomarkers) gained a high reputation for evaluating environmental health. This work presents different approaches, techniques, software, guidelines and tests for assessing contaminated soils; crucial for an integrative soil assessment.

KEYWORDS: Polluted soils, ecohealth, *in silico* models, ecotoxicology, soil organisms.

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Manu Soto, Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Plentziako Itsas Estazioa (PIE-UPV/EHU), Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Leioa, Bizkaia. – manu.soto@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-4541-8182>

Nola aipatu / How to cite: Urionabarrenetxea, Erik; Garcia-Velasco, Nerea; Zaldibar, Beñat; Izagirre, Urtzi; Soto, Manu (2021). «Lurzoru kutsatuen karakterizazio intentsiboa *in vivo* eta *in silico* fokatzeak erabiliz». *Ekaia*, 41, 2021, 127-149. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.22785>).

Jasotze-data: 2021, maiatzak 3; Onartze-data: 2021, uztailak 22.

ISSN 0214-9753 - eISSN 2444-3581 / © 2021 UPV/EHU



Lan hau Creative Commons Aitoru-EzKomerziala-LanEratorririkGabe 4.0 Nazioartekoa lizenzia baten mende dago

1. SARRERA

Bigarren Mundu Gerraz geroztik, biztanleria globala esponentzialki hazi egin da, gaur egungo 7.700M-etara iritsi arte [1]. Estimazioen arabera, 2050 urtean, munduko biztanleria 9.7 bilioitara heltzea espero da [2]. Hazkuntza honetarako ezinbestekoak izan ziren, guda handien gabeziaz gain, osasun eta elikaduraren arloan emandako aurrerapausoak. Antiobiotiko eta txertoen aurkikuntzan emandako aurrerapausoek [2], zein ugalketaren arloan lortutakoek, bizi-esperantza 69,11 (1960) urtetatik 83,5 (2018) urtetara hobetza ahalbidetu izan dute (Espanian); umeen hilkortasuna izugarriki jaistea gain (% 48,4 Europan azken 20 urteetan). Bestalde, nekaritz-a-likagaien industrializazioak janaria kantitate altuetan produzitzea ahalbidetu zuen, neurri batean behintzat desnutrizio- eta gosete-arazoak ezabatuz; aurreko mendeetan sarri izandako arazoak.

Aldiz, aipatutako populazio-hazkuntzak, mendebaldeko gizarteengoa ekonomiko nagusiarekin batera, non garapena hazkuntza ekonomikoaren baliokide den, baliabide naturalen xahutze etengabea bultzatu dute kultura kontsumista batekin batera. Era berean, ondasunen fabrikazio eta kontsumo etengabeak, hondakin eta emisio desberdinak sortzen dituzte; luzetara, medio lurtar, urtar edo aire konpartimentuan buka ditzaketenak; hauek kaltetuz. Izan ere, azken hamarkadetan gorakada izan duten jarduera antropikoak desoreka handiak sortzen hasiak dira aipatutako ekosistematan. Horiek horrela, komunitate zientifikoa beste garai geologiko batez hitz egiten hasia da jada: Antropozenoaz. Mundu mailako fenomeno honek, eredu produktibo eta energetikoen gainez hainbat eztaba sortu izan ditu, datozen hamarkadetarako ingurumen-erronkak ezarriz.

Iragandako mendeen eta oraingoan isuritako berotegi-efektu gasek, atmosferan dauden gasen kontzentrazioa zeharo emendatu du; CO₂-aren kasuan, industriaurreko garaitik gaur arteko % 147ko igoera izan du; 407.8 ppm-ak gaindituz [3]. Gas hauen hazkuntzak lurrazaleko tenperatura gradu batean igotzea ekarri dute jada; eta, iragarpenek diotenez, 2100 urte-rako igoera hori 4°C-koa izatera hel daiteke [4]. Mundu mailako tenperatura igoerak faunan, florak, gizarteengoa ekonomian sor ditzakeen efektuak ezezagunak dira oraindik; hala ere, simulazio ezberdinak eta iragarpenei modeloak bitartez posible da (ziurgabetasun jakin batekin) tenperaturaren emendioak sor ditzakeen efektu potentzialak aurreikustea. Beste efektu batzuen artean, berotegi-efektuak lurzoruko materia organikoaren egonkortasuna, karbono-sarreren emendioa (biomasa-produkzio tasa eta des-konposizio-ratioen afekzioagatik), ur-balantzaren asaldatzea edota lurzoru-erabileren aldaketa eragin dezake [5].

Industrializazio azeleratuak, elikagai beharren emendioak edo gero eta ugariagoak diren desplazamendu transozeanikoek metal, pestizida, PAH, zein hidrokarburoen kontzentrazioa areagotzea eragin dute munduko


ozeano, laku, ibai edo ur-masa ezberdinetan. Era berean, medio urtarra, bizi erabilgarriaren azken atalean dauden makroplastikoen degradaziotik sortutako mikroplastikoen kontzentrazio emendioari aurre egiten ari da. Estimazio ezberdinen arabera, urteko, 5-13 milioi tona plastikok (mundu mailako produkzioaren % 1.5 eta % 4-ren bitartean) itsasoan bukatzen dute [6], jadanik, puntu batzuetan, $4.000 \text{ partikula/m}^3$ -ko kontzentrazioetara iristeraino [7-9]. Era berean, badira lurzoruan mikroplastiko fibra eta zatikatu-tako mikroplastikoen presentzia baieztatzen dituzten lanak ere [10], batez ere araztegi-lokatzak jaso dituzten nekazal lurretan [11]. Behin mikroplastiko hauek lurrean metatuta, landareek aska ditzakete, kate trofikoan sartzeara eta transferitza ahalbidetuz [12]. Guzti honegatik, plastikoek medio urtar, lurtar edo kate trofikoan sor ditzaketen efektuen gaineko eztabaidak sortu izan dira komunitate zientifikoan.

Bestalde, eraldatu gabeko lurzorua gero eta baliabide urriagoa da. Eli-kadura eta Nekazaritza Erakundeak (FAO, *Food and Agriculture Organization*, ingelesez) argitaratu duenez, abeltzaintzan erabiltzen da lurzoru kantitativerik handiena, ingurumena kaltetuz basoen soiltze, lurzoru-erosio, desertifikazio edo biodibertsitate begetalaren galeraren bidez. Gainera, nekazaritzaren hedapenak, habitat naturalen nekazaritza-eremutarako alda-ketak, eta hirien zabaltzeak zeharo areagotu du lurzoru naturalen degrada-zioa [13]. Horrela, abeltzaintzak, nekazaritzak eta urbanizazio-prozesuek (aktibitate industrialekin batera) fisikoki edo kimikoki kutsaturiko lurzoruen proportzioa zeharo emendarazi dute; lurzoru kutsatuen arazoa glo-balki hedatutako arazo izendatzera iristeraino [14, 15]. Izan ere, Ingurumen Agentzia Europarraren (EEA-European Environmental Agency, ingelesez) arabera, 2.5 milioi lursail aurkitu daitezke potentzialki kutsaturik Europar kontinentan; horien artean 340.000 eremu jada kutsatutzat jotzen dira [16].

Lurzorua kutsa dezaketen konposatu eta elementuak bi talde handitan be-reizten dira: kutsatsaile organikoak eta inorganikoak [17]. Pestizidak, izurri-teen zikloak aldatu, akabatu edo kontrolatzeko substantzia (edo substantzia-nahasketa) organiko edo inorganikoak dira [18]. Jatorri natural zein sintetikoa izan dezaketen substantzia hauen erabilera zeharo emendatu zen Bigarren Mundu Gerraz geroztik [19], elikadura espezieen produkzio eta hazkuntza hobetuaren bitartez nekazaritza-ekoizpena bikoiztea ahalbidetu zen. Bestetik, metal astunak pisu atomiko eta dentsitate altudun ($5 \text{ g} \cdot \text{cm}^{-3}$ gutxienez) ele-mentu inorganiko naturalak dira [20]. Haien artean animalia eta landareentzat funtsezkoak diren elementuak aurkitu daitezke: kobaltoa (Co), kobrea (Cu), kromoa (Cr), manganesoa (Mn) eta zinka (Zn); edo, funtsezkoak ez diren ele-mentuak: kadmioa (Cd), beruna (Pb) eta merkurioa (Hg).

Konposatu hauek, isurtzen direnean, medioan bertan edo medio ezber-dinen artean migra dezakete; izan ere, biosferaren euskarri diren atmosfera, hidrosfera eta litosfera ez dira erlaziorik gabeko konpartimentu estankoak, baizik zuzenki erlazionatuta dauden fluxu konstanteko konpartimentuak

(horrela Ekosfera sortuz) (1. irudia). Hori dela eta, kutsadurak, aldaketa klimatikoarekin batera, lurzoru emankortasuna kaltetu dezake solido/likido/gas oreka aldatuz (temperaturen igoera batek, ebaporazio tasak emendaraziko lituzke, lurzoruetako ur/gas proportzioa eraldatu, lurzoruak konpaktatz...) eta lurzoruko karbono organikoaren kantitatea jaitsiz (temperaturen aldaketa batek deskomposizio/produkzio tasak eraldatuko lituzke). Aldi berean, medio ezberdinetan gertatzen diren aldaketeak haietan bizi diren espezieak kaltetu ditzakete; horrela, Zerbitzu Ekosistemikoak kaltetzen dituzte.



1. irudia. Medio ezberdinen arteko fluxua eta medio bakoitzean bertako organismoenanako kutsatzaileek daukaten esposizio bidea. Scullion 2006-tik [21] hartua eta eraldatua.

2. ZERBITZU EKOSISTEMIKOAK ETA LURZORUAREN OSASUNA

Zerbitzu ekosistemikoak giza ongizatean onura duten ondasun ekosistemikoak dira [13,22,23], gizakia hornitzen duten maila ezberdineko ondare eta zerbitzuak barneratzen dituztenak [24-26]. Horrela, 2005. urtean, *Millennium Ecosystem Assessment*-ek lau kategoria ezberdinetan sailkatu zituen zerbitzu ekosistemikoak: (1) hornitze-zerbitzuak (elikagai, ur, egur, zuntz eta erregaien hornitze zuzen edo ez-zuzena), (2) erregulazio-zerbitzuak (ur eta gas, klima, uholde, erosio edota gaixotasunen erregulazioa), (3) zerbitzu kulturalak (estetikoa, espirituala, hezkuntzazkoa eta aisialdikoa), eta (4) sostengu-zerbitzuak (habitaten sostengua, nutrienteen zikloa, produkzioa eta biodibertsitatea [23, 26].

Ekosistema lurtarren zerbitzuak lurzoru propietateen eta haien elkarre-kintzen araberakoak dira; jatorri naturala edo antropikoa izan dezaketen prozesu fisiko-kimiko eta biologikoek baldintzatuak dira batik bat. Erosioek, luiziek, karbono- eta biodibertsitate-beherakadek, edo elementu kutsatzaleek, lurzoruaren degradazioa bultzatzen dute; gaur egun, elikadura-segurtasunean zein sostengarritasun-arloetan aurre egin beharreko erronka izateraino [26-29].

Lurzoruan bizi diren organismoek, ekosistemaren funtsezko zerbitzuean laguntzeaz gain, sistemaren funtzionamendu jasangarria ahalbidetzen dute. Besteak beste, laguntzen dute nutrienden zikloa bultzatzen, ura purifikatzen, materia organikoko dinamikak eta egiturak erregulatzen, karbonoa lurrean bahitzen eta berotegi-gasak mantentzen [30]. Zerbitzu horiek, nekazaritza jasangarrirako eta azpiegitura urbanorako baliabide garantzitsuak izateaz aparte, ezinbestekoak dira ekosistema naturalen funtzionamendurako [31]. Horregatik, lurzoruko populazioetan gerta daitezkeen aldaketek sistema osoaren oreka asalda dezakete; eta garatutako zerbitzu ekonomikoak/ekosistemikoak eragin.

Ekosistema baten kalitatea helburu jakin baten garapenean erakusten duen erabilgarritasun edo efizientziaren bitartez interpretatzen da. Osasunaren kontzeptua, aldiz, funtzionaltasuna barneratzen duen kontzeptu zabalagoa da; hots, funtzoak modu jasangarriagoan garatzea jasotzen duena. Kalitatearen kontzeptuak problema bati kausa-efektu logika linealetik aurre egiten dio; osasunaren kontzeptuak, berriz, *EcoHealth* eta *One Health* ize-nez ezagutzen denak, ente bizi, konplexu eta interrelacionatutzat ulertzen du ekosistema; bizitzaren garapenerako, bai giza bai animalia-bizitzarako, beharrezko dena. Biak, bai *Ecohealth* bai *One Health* kontzeptuak, izakera holistikodun fokatze sistemikoak dira, giza osasunaren, animalia-osasunaren eta ingurumen osasunaren arteko elkarrekintza konplexuan oinarritzen direnak [32].

Hamarkadetan zehar, lurzoru baten egoera bere kalitatearen bitartez aztertu izan da; horretarako, kalitate- edo onarpentatalaseak karakterizazio kimiko eta fisiko-kimikoekin erkatzen dira. Hala ere, azken urteotan agertutako kontzeptu holistikoek erabat aldatu dute fokatze hori. Modu horretan, lurzoruaren osasuna ezagutzeko parametro fisiko eta kimikoez gain lurzoruan bizi diren espezie adierazgarrietan kutsadura efektuak kontuan izatea lortu da arriskua ebaluatzeko orduan.

3. INGURUMEN-ARRISKUAREN EBALUAZIOA

Arriskua da akzio edo kondizio zehatz batek sor dezakeen/ditzakeen ondorio kaltegarria/ak gertatzeko probabilitatea, arriskuen konbinazioa eta esposizio ebaluazioa barnean hartuz [33]. Ingurumen-arriskuaren ebalua-

zioa (ERA, *Evaluation Risk Assessment* ingeles) agente arriskutsuek giza osasunean eta kalitate ekologikoan sor ditzaketen elkarrekintzen/inpaktuen ikerketan oinarritzen da; horietan, arriskua identifikatzea, arazoa formulatzea, arriskua analizatzea eta karakterizatza bilatzen da [33]. Ebaluazio horiek arriskua kudeatzea eta euste- zein erremediazio-neurriak planteatzea ahalbidetzen dute. Izan ere, fokatze hori, lotuta daramatzan kudeaketa modeloekin batera, gero eta erabiliagoa da politika- eta erregulazio-maila ezberdinan. Giza edo ingurumen-osasunarentzat «onargarriak» diren arrisku-mailak dituzten erregulazioak diseinatzea ahalbidetzen du, eta kokaleku erasokor/sentikorrok alterazio posibleen aurrean lehenesten laguntzen du.


Injurumen-agentzia, nazioarteko erakundeek eta komunitate zientifikoak zeharo onartu izan dute ezin daitezkeela injurumen-arrisku ebaluazioak karakterizazio kimiko batean bakarrik oinarritu. Izan ere, ikuspuntu horrek ez du kutsatzaileek biotarengan eragiten dituzten efektuen gaineko informaziorik eskaintzen. Horren harira?, kutsatzaileek eragindako efektu toxikologikoen neurketek omen handia irabazi dute injurumenaren osasuna ebaluatzeko orduan [34-36]. Horretarako, kutsatzaileek maila ezberdinan eragin ditzaketen efektuak ebaluatzeko, neurketak egiten dira konplexutasun biologikoko maila desberdinan. Lurzoruan bizi diren organismoen gaineko arrisku-ebaluazioa 91/414/EEC Kontseilu Direktibak garatutako «SANCO /10329/2002 346 *Terrestrial Ecotoxicology Guidance Document*»-aren gidaritzapean egiten zen [37]. Direktiba hori, 2011n indargabetuta gelditu zen 1107/2009 (CE) (produktu fitosanitarioen komertzializazioari dagokiona) araudiaren bitartez. Era berean, Batzordearen (EB) 348 283/2013 (*REACH: Registration, Evaluation, Authorisation and Restriction of Chemicals* ingeles) eta 284/2013 araudiek baldintza berriak eta osagarriak ezarri zituzten substantzia aktiboen eta landare-osasunerako produktuen (PPP, *Plant protection products* ingeles) gainean.

Lurzoru-organismoen gaineko arrisku-ebaluazioak, arrisku-ebaluazio orokoren printzipio berberari jarraitzen diot; hots, (1) arrisku potentzialaren identifikazioa, (2) arrisku potentzialaren karakterizazioa, (3) exposizio-ebaluazioa eta (4) arriskuaren karakterizazioa burutzen ditu. ERA burutzeko, substantzia toxiko ezberdinen inguruko *in silico* modeloak garatu izan dira. Haien artean, zori modeloak eta efektu modeloak aurkitu daitzke; baita biak konbinatzen dituzten FTE (*Fate Transport Effect*, ingeles) modeloak ere [38]. Zori modeloek, injurumeneko konpartimentu jakin batean aurkitu daitezkeen kontzentrazio kimikoak iragartzen dituzte; hala nola, lurzoru edo erreka batean aurkitu genitzakeen konposatu kimikoen kontzentrazioak. Efektu modeloek, aldiz, gorputz edo konpartimentu biologiko jakin bateko kontzentrazioa efektuetara itzultzen dute. Horretarako, estimatutako kontzentrazioen inpaktuak, konplexutasun biologikoko maila ezberdinara estrapolatzen dute; hots, organismoaren hazkuntzatik, populazio edo komunitatearen garapenetik, ekosistema eta paisaia-aldaketeta-

tik ekosfera osoa ikertu arte [38]. Hala ere, efektu-modelizazio honetarako, ezinbestekoa da zorizko aurreikuspen egoki bat [39].

3.1. *In silico* modeloen erabilera lurzoruen arriskuaren ebaluazioan

Ingurumen-modelo kuantitatiboen erabilera oso hedatuta dago ERA-n eta ondorengo ingurumeneko erabaki-hartze sistemetan (*EDSS: Environmental Decision Support Systems*, ingelesez) [40, 41]. Zorizko modeloen artean Elikagaien Babeserako Autoritate Europarrak (EFSA: *European Food Safety Authority* ingelesez) garatutako PERSAM (*Persistence in Soil Analytical Model* ingelesez) softwarea aurkitu daiteke. Software hori, lurzoruan zein lurzoruko ur-fasean aurkitu daitezkeen produktuen eta haien azpiproduktuen kontzentrazio-aurreikuspenak (*PEC: Predicted Environmental Concentrations*, ingelesez) kalkulatzeko garatuta dago. Kalkulurako, egitura espaziala daukaten 62 datu-multzo erabiltzen ditu softwareak: 6 datu-multzo orokor, 27 datu-multzo meteorologiko, lurzoru gainazaleko 5 datu-multzo eta 24 ucta datu-multzo erabiliz.



2. irudia. PERSAM softwareak PPPen kalkulurako erabiltzen dituen 64 datu multzoak eta kalkuluetarako gainjarritako mapa datuen 3 adibide: urteko prezipitazio totala (A), urteko batez besteko temperatura (B) eta gainazaleko materia organikoaren kantitatea (C).

Modeloak, $1 \times 1 \text{ km}^2$ -ko bereizmenarekin burutzen ditu kalkuluak, eta esparru horretako lur-erabilera nagusian oinarritzen da. Batik bat pestiziden patua aurreikusteko erabiltzen den software hau gai da, produktuaren/pestizidaren ezaugarriak sartuta (kom zein koc adsorzio-koeficienteak, pisu molekularra eta DegT50-Degradazio ratioa-) eta aplikazioaren maiztasunak sartuta (urteko aplikazio kantitatea, lehenagoko aplikaziotik pasatako egunak eta fsoil-Lurzorura heltzen den frakzioa-): (a) *TIER-1* Aurreikusitako ingurumen-kontzentrazioak (PEC) edo (b) *TIER-2* Aurreikusitako ingurumen-kontzentrazioen 95 pertzentila, lurzoru osoan eta lurzoruko fase likidoan, denbora (0, 7, 14, 21, 28 eta 56 egunetara) eta sakonera desberdinetara (1, 2.5, 5 eta 20 cm-ra) kalkulatzeko. Behin datu horiek izanda, esposizio-aurreikuspen egoki bat izanda, posible litzateke efektu potentzialen azterketa edo modelizazio zehatz bat egitea.

Bestalde, badira giza osasunaren gaineko arriskua kalkula dezaketen efektu-modeloak (*HHRA: Human Health Risk Assessment*, ingelesez). Horiek substantzia jakin batek errezeptore potentzial batzuen gainean generatzen dezan eten efektu kaltegarrien karakterizazioa eta kuantifikazioa burutzen dute [41]. Arriskuen ebaluazio honek kontuan hartzen ditu esposizio kimikoena natura, magnitudea, denbora, garraio-mekanismoa, esposizio-bidea eta errezeptoreen sentikortasuna. Modelo hauen artean, Eusko Jaurlaritzak EAE-ko lurzoru kutsatuek gizakiengan sor dezaketen inpaktua ebaluatzen RBCA (*Risk-Based Corrective Action* ingelesez) modeloa bermatua aurkitu daiteke. RBCA kimikoena askapenerako lanabes kit-a (*RBCA Tool Kit for chemical releases* ingelesez) Materialen Testerako Elkarte? Amerikarrak (ASTM: *American Society for Testing Materials* ingelesez) Estatu Batuetan argitaratutako modeloa da [41, 42]. Honek esposizio bide bakotzerako arrisku-balio indibidualizatua zein metatua kalkulatzea ahalbidetzen du; ezarritako baldintza bakotzean aurreikusitako atalase balioekiko konparazioa ahalbidetuz. Era horretan, posible da eszenario bakotzean lorturiko arrisku-balioak atalaseekin konparatzea; hortaz, arriskua edo arrisku-gabezia aurreikus daiteke. Autore batzuek RBCA modeloa arriskuen azterketarako gida estandarizatu eraginkor eta erabilientzat jotzen dute [43]. Izen ere, eredu hau munduan zeharreko hainbat puntu geografikotan aplikatua izan da autoritate erre-gulatzaile ugariren eskutik [41]. Hala ere, eta erabakiak hartzeko sarri erabili izan den arren (lurzoru kutsatu baten deklarazioan, garbiketa/deskontaminazio-ekintzetan, zigilatzeetan, traza-mailan kutsatutako lurzoruen ikerketetan), emaitza kontserbadoreegiak eta gain-estimatuak sor ditzake RBCA modeloak [43].

Horrela, ERAren sendotasuna eta fidagarritasuna bermatzeko, beharrezkoa da *in silico* frogekin batera eszenarioak esplizituki frogatzea. Horretarako, ikertu beharreko lekuetan bizi diren espezie esangarriekin burututako toxikotasun-bioentseguak erabil daitezke.

4. TEST EKOTOXIKOLOGIKOAK LURZORUKO ESPEZIEEKIN

Toxikotasun-testetan, organismoak kutsatzaile-kontzentrazio eta mota ezberdinaren pean izaten dira medio ezberdinetan (uretan, sedimentuetan edo lurrean), ondoren organismoen hazkuntza, jarrera, eta biziraupena bezalako ezaugarriak ebaluatzeko [44]. Horrela, test hauen bitartez, medio jakin bat-ean dauden kutsadura-mailak organismoengen kalteak sortzeko adinakoak diren (edo ez) ebalua daiteke. OECD, ISO edo EPA bezalako erakundeek nazioartean balioztatutako protokoloak garatu izan dituzte kimiko ezberdinen toxikotasunaren estimaziorako [45]. Ekotoxikotasun-test estandarizatu hauek ahalbidetzen dute eskualde ezberdinetako laborategietan emaitza berdintsuak lortzea, konparazioak erraztea eta ezarritako toxikotasun-neurketen fidagarritasuna areagotzea [46].

Toxikotasun-testen barruan, espezie, medio eta efektu desberdinak ikertzen dituzten entseguak daude. Test estandarren garapenerako espezie modeloak berauen garrantzi ekologikoagatik, laborategi mantenu errazagatik eta belaunaldi denbora laburragatik aukeratuak izan behar dira [47, 48]. Espezie-modelo horien artean, hauek aurkitu daitezke: zizareak (*Eisenia andrei* eta *E. fetida*), enkitreidoak (*Enchytraeus albidus* eta *E. crypticus*), moluskoak (*Helix aspersa*), akaroak (*Hypoaspis aculeifer*, *Platynothrus peltifer*, eta *Oppia nitens*), isopodoak (*Porcellio scaber* eta *Porcellionides pruinosis*), kolenboloak (*Folsomia candida* eta *F. fimetaria*), Carabidae familiako intsektuak (*Pterostichus oblongpunctatus*, *Poecilus cupreus* eta *Oxythyrea funesta*) edo bestelakoak [49]. Lurzoru ornobeez aparte, espezie vegetalak erabiltzen dituzten test estandarizatuak ere garatu izan dira kutsatzaile ezberdinen toxikotasuna aztertzeko. Test mota horietan, hazi eta landareetan egin daitezkeen neurketak erabiltzen dira toxikotasuna barematzeko; aipagarrienen artean, *Lactuca sativa* edo *Cucumis sativa* espeziekin burutu daitezkeen EPA-ren OPPTS 850.4225 [50] eta OECD-ren 208 [51] (2003) gidalerroak aurkituz. Aipatutako espezieen desberdintasun fisiologiko eta morfologikoei esker (elikatze- eta portaera-ohiturekin batera), kutsatzaileak hartzeako bide desberdinak azter daitezke; lurzoruan, lurzoru poro-uraren edo airearen esposiziaren bitartez, zein elikaduraren bitartez (lurra jatean) kutsatzaileak inkorporatzen baititzute [52]. Efektuei dagokienez, toxikotasun testek, parametro letal eta/edo subletalak neur ditzakete [44].

Zizareak [46, 53-56], kolenboloak [57, 58], akaroak [59] eta enkitreidoak [60-62] dira lurzoru ekotoxikologi test-baterietan gehien erabiltzen direnak. Izan ere, hirurogeigarren hamarkadaren bukaeran burutu ziren lurzoruetako lehen toxikotasun-testak [63, 64]; kolenbolo eta zizareak erabiltzen zituzten pestiziden toxikotasuna ebaluatzeko [65, 66]. Zizareak, kutsaduraren aurrean modu sentikor eta neurgarrian erantzuten duten metal-metatzairen efizienteak dira. Ondorioz, organismo behale hauen era-

bilpena zeharo zabaldu da lurzoruen kutsadura ikerketetan; bereiziki, *E. fetida*/*E. andrei* espeziak izanik erabilienak.

E. fetida (Savigny, 1826) lurrean deskonposatzen ari den materia organikoan, konpostean eta lizunean bizi den zizare epigeikoa da [67]. Organismo hauek, ezinbesteko zereginan burutzen dute lurzoru formazioan, MOaren deskonposaketan eta nutrienteen berziklapenean [68]. Ugalketa-ziklo erlatiboki laburra dauka [69], arrautzen eklosiotik 21-30 egunetan (baldintza optimoetan) heldutasuna lortuz eta 45-51 egunetan hurrengo belanaldia sortuz [70]. Arrautzen lurreratzea, kopularen ondorengo 48 orduetan gertatzen da, oinordekotzaren produkzioa 0.35 eta 1.3 arrautza/egun-eta-koa izanik. Hala ere, eta zizareek urte osoan arrautzak produzitu ditzaketen arren, urtaroen arteko hezetasun, temperatura, janari eta bestelako faktoreen aldaketek, populazioen tamaina eta biomasetan eragin dezakete [71, 72]. Jaiotzen diren oinordekoen kantitateak 2.5 eta 3.8 bitartean oszila dezake; temperaturaren ondorioz batik-bat [73].

Espezie hau kutsatzaile kimikoek eragindako toxikotasunaren erakusle ona izateaz gain, estres-faktore anitzen efektuak [74], lurzoruaren egoera fisikoa (konpaktazioa/trinkotzea, hidrologia, eta abar) eta lurzoru-erabilpenak ebaluatzeko adierazle sentikor eta egokia da [75]. Honek guztiak, organismo merkea, egokia eta eztabaidea etiko bakoa izatearekin batera, experimentaziorako modelo-organismo oso erabilia izatea bultzatu du [14, 67]. *E. fetida* zizareak kutsadurarekiko erakutsi izan duten sentikortasuna dela eta, zabalki erabiliak izan dira zenbait organismo internazionalek argitaratutako toxikotasun-test estandarizatuetan [53-56] lurzoruen afekzioak iker-tzeko [76-81].

4.1. Toxikotasun testak *Eisenia fetida* zizarearekin

Kutsatzaileek *E. fetida* eragin dezaketen arrisku potentzialak ebaluatzeko, toxikotasun-test akutuak eta kronikoak aurkitu daitezke. Test akutuen [55] artean, heriotza dosia (LC_{50}) bilatzen duten Paper kontaktuko testa eta Lurzoru artifizialeko testa aurkitu daitezke. Lehenengoan, ikertu nahi den sustantziaz hezetutako paperararekin kontaktuan jartzen dira zizareak bi egunetan zehar; efektu kimikoek behaketa arin bat egiteko eta kimikoek hartzera eta biotransformazioen azterketa burutzeko teknika erabilgarria dira [49]. Hala ere, test mota honek esposizio dermiko bidezko toxikotasuna antzematen du batik bat [82]; ingestio bidezko toxikoen barneratzea (fase solidoa egongo liratekeenak) ebaluatzeko, lurzoru bidezko esposizioaren beharra dago [80, 83, 84]. Lurzoru artifizialeko testek, kimikoek zizareengan eragiten dituzten toxikotasun-efektuen datu adierazgarriagoak eskaintzen dituzte; horretarako, substratutzat % 70 harez, % 20 buztinez eta % 10 turbaz eginiko lurzoru artifizialak erabiltzen dira [55]. Azken urteotan, baldintza errealen adierazgarritasuna hobetzeko xedez, LUFA lurzoru

natural eta estandarren erabilera hedatzen hasi da [85]. Izan ere, Alemanian (Speyer) komertzializatutako lurzoruen MO kantitatea (% 1.25-5.36 bittarean) OECD lurzorua baino baxuagoa da; nekazaritza-lurzoruetara gehiago hurbilduz (% <10) [49].

Behin kutsatzaileak organismo barnean daudela, kalte fisiologiko ezberdinak eragin ditzakete; hazkuntzan, elikagaien asimilazioan zein ugalketarako energia-gastuan, azkenik norbanakoentzako heriotza eragin arte [80]. Hala ere, lurzoruko organismoenganako efektu toxikologikoak ikertzeko frogak hedatuak diren arren, efektu subletal asko: portaera-aldaketak, ugalketa-aldaketak, inhibizio entzimatikoa edo kalte genetikoa bezalakoak, ez dira erasotzen toxikotasun akulturako test hauetan.

Populazioen dinamikan daukan garrantzia dela eta, azpimarratzeko da ugalketa-azterketek toxikologian duten garrantzia [86, 87]. OECD-222 testa, adibidez, agente kimiko ezberdinak ugalketa errendimenduan sor zitzaketen efektuak aztertzeko diseinatutako testa da. Espresuki, hilkortasun- eta hazkuntza-parametroak neurten dira 4 astean zehar (28 egun) esposizioean izandako zizareetan; 56 egunetara ugalketaren gaineko efektuak (oinordekotza) ebaluatzen diren heinean. Modu honetan, eta entsegu hau erreprodukzio-parametroak lortzeko diseinatuta dagoen arren, indikatzairen askoren lorpuerako (EC_x, LC_x, LOEC edo NOEC) test baliagarria da.

Aipatutako toxikotasun testetatik eratorritako heriotza- eta ugalketa-parametroak agente kimikoentzako arrisku ebaluazio eta erregulaziorako garrantzi handikoak dira [87-89]. Hala ere, azken hamarkadetan, ikerkuntzaren esfortzuak azterketa hauen sakontzean jardun dira, ekotoxikologia modernoaren esparruan biomarkatzaile berriak garatuz eta validatuz [80].

4.2. Biomarkatzaileen neurketa *E. fetida* zizarean

Biomarkatzaileak, kutsatzaileenganako esposiziorik eta/edo efekturik izan den ala ez argituko duten parametro neurgarriak dira. Konplexutasun biologiko simpleenetan (maila molekularrean, zelularrean, ehun-mailan) neurten diren arren, maila biologiko konplexuagoetan gerta daitezkeen (populazio-, komunitate- edo ekosistema-mailan) aldaketak aurreikusteko duten ahalmenagatik [90], diagnosi goiztiarrak burutzeko tresna eraginkor bezala erabiliak dira. Neurketa kimikoek ez bezala, biomarkatzaileek, kutsatzaileek eragindako inpaktu biologikoen garrantziari buruzko informazioa eskaintzen dute [36, 91]. Horregatik, kutsatzeileek lurzoru-ekosistemetan eragin ditzaketen efektuak kuantifikatzeko, lurzoru ornobetean (*E. fetida* kasu) aplikaturiko biomarkatzaileen gaineko interesa asko hazi da azken urteotan [80, 92-94]. *E. fetida* zizareetan gehien erabiltzen diren biomarkatzaileen artean, DNA alterazioen behatzeak (maila molekularra), metalei elkartzen zaizkien proteina (MT-*Methallothioneins* - eta MBP-*Metal binding proteins*- ingelesez), kolinesterasa eta erantzun entzimatikoen

neurketak, energia gordekinen kuantifikazioa (maila biokimikoa), lisosomen mintz egonkortasunaren azterketa (maila zelularra), espermaren kilitatea eta erantzun immunologiko, neurologiko, histologiko (ehun-maila) eta portaerazkoen analisiak aurkitu daitezke [78, 94-97]. Frogatua izan da, gainera, metalekin kutsatutako lurzoruek mintz lisosomikoaren ezezonkortasuna [93, 98], aktibilitate entzimatikoa eta geneen adierazpena [99-101], estres oxidatiboa [88, 102, 103] zein DNA-an kalteak [104-105] eragin ditzaketela.

Azken hamarkadan, maila zelularreko biomarkatzaleen garapenean emendio argia gertatu da; haien artean, zizareen zelula immunitarioetan (zelomozitoetan) aplikaturikoak nabarmentzen dira. Zelomozitoak barrunbe zelomikoko likido zelomikoan aske dauden zelula immunitarioak dira; gizakien leukozitoen homologoak [107]. Likido zelomiko hau, esekiduran daramatzan zelomozitoekin batera, zizareen lakainetako nefridio pareetatik eta poro dortsalatik kanporatzen da [67, 108], eta ezinbesteko rola du material ezezagunen errekonozimenduan eta eliminazioan zein zaurien koagulazio eta orbaitean [109, 110]. Funtzio horietarako, entzima hemolitiko, proteolitiko eta zitotoxikoez baliatzen dira zelomozitoak [110]. Zelomozitoen artean, pigmentazio, ultraegitura, funtzio, konposizio granular zein portaera desberdina (atxikidura eta kimiostasi) duten [111] bi subpopulazio nagusi bereiz daitezke: amebozitoak eta eleozitoak [112-114].

